

# **NESKEN ALDI**

**(hiru zatitan)**

MADDI: Ostatuko anre geia.

MADDALEN: Maddiren ahizpa gaztea.

ANDRES: Ostalera (45-50) politikan xuria.

KAPITEINA: Maddiren aitatxi arras zaharra.

ERRIENTA: Politikan gorri errabiatua (xarskoa, 40 bat urthe).

KAKERRE: Maddirentzat Andresek daukan gizona.

PERTTOLI: 50 urtheko giza-gaixoa Maddiri begia emana.

XURRUPERO: Edalea.

KATTALIN: Atso zaharra.

BRIGADIERRA

JANDARMA: Mustatxadun beltza.

MICHEL: Maddiren gizon geia.

# I

*Ostatu barnean. Igande goiza. MADDALEN kontoarretik, sukalderat. PERTTOLI eta XURRUPERO mahain batean buruz buru jarriak, botoila arnoa hustuxea aintzinean kantuz:*

*Aurten arnoa merke da  
Lau bortz soretan pinta da  
Andreak ere edaten dute erreberroa bezala  
Batek bertzeari diotelarik motoa xuxen dozatela.*

**PERTTOLI** (Kontoarreko alderat bazterka behaturik): Errazu, Xurrupero, kontseilu bat banuke zuri galdatzeko.

**XURRUPERO**: Gu, bethi prest gare kontseilu emateko.

**PERTTOLI**: Gauza serioa da arras serioa! Eta... holako kasuetan adixkiden laguntza bethi hartzeko da.

**XURRUPERO**: Milesker ni hautaturik hortako... Zertaz da bada ixtorioa?

**PERTTOLI**: Zaude... (basoak bethetzen ditu) Lehenik hitz eman behar dautazu, ez zarela lausenguz ariko. Gogoan duzuna garbiki erraitea, nahi dut!

**XURRUPERO**: Hala nahi duzunaz geroz, hala eginen dugu.

**PERTTOLI**: Ez dezaket jasan, faltsuki hartzen diren adixkideak.

**XURRUPERO**: Ba, alainan...

**PERTTOLI**: Eta oraiko egunean, adixkide zintzo guti eta baterez.

**XURRUPERO**: Egia hori.

**PERTTOLI**: Hitz eman ezadazu beraz, Xurrupero ahoan bilotik gabe mintzatuko zarela.

**XURRUPERO**: Hitz ematen dautzut.

**PERTTOLI**: Alafede?

**XURRUPERO**: Alafede... Zer da zure arrangura?

**PERTTOLI**: Nik jakin nahi nukena ongi eginen dutanez ezkontzea.

**XURRUPERO**: Nor ezkondu... Zu?

**PERTTOLI**: Ni ba. Zer iduritzen zautzu?

**XURRUPERO**: Lehenik gauza bat erran behar dautazu.

**PERTTOLI**: Eta zer?

**XURRUPERO**: Zer adin duzu orai?

**PERTTOLI**: Zer adin?

**XURRUPERO**: Ba.

**PERTTOLI**: Egia erraiteko, ez dakit, bainan osagarri ona dut.

**XURRUPERO**: Ez baitakizu, zer adin duzun, guti gora behera bederen?

**PERTTOLI**: Ez dakit, ez... uste baduzu, horri kasu ematen den.

**XURRUPERO**: Errazau, zer adin zinu en elgar ezagutu ginuelarik?

**PERTTOLI**: Zu, gure herrirat etorri zinelarik? Doi-doi hogoi urte.

**XURRUPERO**: Zenbat urte eman dituzu errotan mutil.

**PERTTOLI**: Zortzi urthe eskasak.

**XURRUPERO**: Eta Piarres arno marxantarekin?

**PERTTOLI**: Zazpi.

**XURRUPERO**: Karrosa zain baten mutil ere, ez zare egona guti edo aski?

**PERTTOLI**: Ba Martin-Kotxe erraten zioten batekin.

**XURRUPERO**: A, to. Martin Kotxe? (kantuz)

*Nafartar naiz eta deitzen Martin-Kotxe*

*Arno gozoa maite omen dut sob'raxa*

(PERTTOLIk laguntzen du bururatzen)

*Debru frantsesak naute trufatzen holaxe:*

*"Il était Martin, gai, gai, gai, dimanche"*

**XURRUPERO**: Eta noiztik geroz ari zara zure kondu?

**PERTTOLI**: Hori, Martin-Kotxe nusia hil zelarik, haren andreak denak saldu zauzkiten bera Baionarat gan zer bizitzerat.

**XURRUPERO:** Otsailaren ondarrean hamabi urte eginen ditu horrek...

**PERTTOLI:** Justu otsailaren hogeita hamarrean edo hogoita hamekan...

**XURRUPERO:** Hamabi urte beraz,... Bortz urte Martin Kotxerekin heldu da hamazazpi, zazpi arno marxantarekin, hogoita lau... Zortzi urte Errotan, heldu baita hogoita hamabi; eta hogoi, elgar ezagutu ginuelarik. Heldu zauzkitzu, zuhaurek diozunaren arabera, berrogoita hamabi, berrogoita hamahiru urte.

**PERTTOLI:** Nik berrogoita hamabi urte? Hori ez ditakena da.

**XURRUPERO:** Jesus, karkulak xuxen ditugu bada. Eta adixkide gisan, garbili mintza nadin galdetu dautazu. Hitzeman bezala den bezala erran dautzut: ezkontza ez da zuretzako gauza.

**PERTTOLI:** Ezkontza ez neretzako gauza?

**XURRUPERO:** Bada denetako adin bat. Xuxen da gazteak ezkontzeari pentsa dezan; aintzinetik karkulak behar ere ditu egin... Amoratzea, gaztentza loratzea... Baina gure adinean! Zorotzea da!

**PERTTOLI:** Baina ni gazte naiz...

**XURRUPERO:** Gazte ala ez gazte, ez dut konprenitzen Perttoli, berrogoita hamabi urtez uros izan ondoan, zer egin zautzun. Badakizu errana dela: ezkont eguna zorion biharamuna. Aspertu ote zare bada zorionaz beraz...

**PERTTOLI:** Baina...

**XURRUPERO:** Orain arte, ezkondu gabe geldituz, zuhurki jokatu zare; eta zer! Orai.

**PERTTOLI:** Baina, zinez ari zare Xurrupero?

**XURRUPERO:** Gogoan dutana erraten dautzut, nik... Ez zaitut, albainan, ezkontzeko, erraten ahal, astokeria baten egiterat beroaraztea bailitake.

**PERTTOLI:** Nik ezkondu nahi dut bada. Eta ez dut zorokeria eginen, andretzat hautatua duten neskaxarekin, ezkonduz... Egia errateko, hiru baditut hauta.

**XURRUPERO:** Hetarik biek zer xantza izanen duten.

**PERTTOLI:** Nik ere xantza izanen dut, hiruetarik maiteena dutanarekin ezkonduz.

**XURRUPERO:** A! Hori bertzerik da. Lehenago erran bazinautazu.

**PERTTOLI:** Hura egiazki gostukoa dut;... eta bihotz-bihotzetik maite dut.

**XURRUPERO:** Bihotz-bihotzetik maite duzu?

**PERTTOLI:** Uste nuke; eta... egun berean solastatu gogo dut.

**XURRUPERO:** Orduan, ezkont zait, ezkont: ez dut pitsik erratekorik.

*(Biak xutitzen dira)*

**PERTTOLI:** Hala beharrean, oraino nexkatxa hura burutik utz nezake... Uste duzu, Xurrupero, ezkontzeari uko egitea hobe dutala?

**XURRUPERO:** Orai, berriz dudan zaude?

**PERTTOLI:** Nere adina ez dezagun aipa, eta gauzak diren bezala ikus ditzagun. Ezagutzen duzu, hogoita hamar urtheko mutiko gazterik, ni baino freskoago eta sendoago denik? Ez naiz airoz eta arin ni?

**XURRUPERO:** Idi txarra, beti ergi! (*Irri ergel batean*) Ho! Ho! Ho!

**PERTTOLI:** Nahi duzuna bezanbat, baina ez ditut ahoko guziak hemen eta onak? (Hortzak erakusten ditu).

**XURRUPERO:** Ditazken hoberenak... andreak gogotik ikusiko zaitu segur, sukalderat hortzak ahoan heldu.

**PERTTOLI:** Ez ditut nik egunean lau apairu erdi egiten? (*Estomaka erakutsiz*) Errota hunek denak ehotzen ditu aitzina (*Eztulka*) He! Zer iduritzen zautzu?

**XURRUPERO:** Hala da. Makur ari nintzen. Ongi eginen duzu ezkonduz.

**PERTTOLI:** Lehenago ez nuen holakorik nahiko, baina orai baditut hortako arrazoinak eta onak: etxean hobe dut, bakarrik baino norbaitekin; gero, bertzalde... ikusten dut, mutil zahar geldituz, munduan suntsitzerat doala perttolitarren arraza.

**XURRUPERO:** Hori ere hala da... Eta perttolitarren arraza galtzerat heldu balitz, munduarentzat galtze izigarria litake.

**PERTTOLI:** Nahi ala ez; Perttolitarrik ez liteke, alabainan gehiago.

**XURRUPERO:** Beltza litake, beltza munduarentzat.

**PERTTOLI:** Horixe bera duzu, bada, nik ere nere baitan egiten dutana.

**XURRUPERO:** Hatzeman, hatzeman guk zaina.

**PERTTOLI:** Ezkonduz aldiz, nere burua bizi ikusten ahalko dut nere haurretan... Zer loria, Xurrupero, ikustea nitarik sortu haurrak, bisai ttiki pullit batzu, dena ni iduriak, sukaldean jostatzen ari (*XURRUPEROri beha, baietz erranarazi nahi balio bezala*).

**XURRUPERO:** Errazu berriz.

**PERTTOLI:** Aita erranen dautet, Baionatik arratsetan nere karrosarekin etxerat sartzean. Zer loria (*Berriz ere XURRUPEROri behar*)... Eta beren erasia suertean ariko zauzkit... eta beren ixtorioak kondatuko dauzkitet. Zer loria, Xurrupero! Zer loria! Hori iduritzen zaut, jada, hekien erdian naizela!

**XURRUPERO:** Behazu, ez da deus atseginagorik. Ezkont zaite, ezkont ahalik eta lasterrena. Horra nere kontseilua.

**PERTTOLI:** Egia Xurrupero? Hala kontseilatzen nauzu?

**XURRUPERO:** Segurki Perttoli.

**PERTTOLI:** Egiazki konten naiz, adixkide gisan mintzo baitzare.

**XURRUPERO:** Errazu, ta nor duzu, ez bainaiz sobera kurios, delako...?

**PERTTOLI** (*Kontoarreko aldera begiraturik*): ez gintuzke Maddalenek aditu behar. Horren ahizpa, Maddi dut.

**XURRUPERO:** Ba zera? Hemengo alaba?

**PERTTOLI:** Ba naski!

**XURRUPERO:** Jesus! Jesus!

**PERTTOLI:** Ta? Zer iduritzen zautzu?

**XURRUPERO:** Ez duenak balu!

**PERTTOLI:** Ez ongi hautatua?

**XURRUPERO:** Uste nuke!... Ezkontzekotan, ernatze ahal zira, zure onetan.

**PERTTOLI:** Erna nere onetan? Zertako?

**XURRUPERO:** Neska xarmanta da alabaina, eta... ez baitu segur galdea eskas izanen!

**PERTTOLI:** Bo! Ez da nihorat atheratzen Maddi...

**XURRUPERO:** Kabale onak etxerat bererat xerkaria.

**PERTTOLI:** Uste duzu, Maddiri, inork begia emana dion?

**XURRUPERO:** Uste? Segur. Kakerra ezagutzen duzu? Maddiren aitak, hura du bere gizona.

**PERTTOLI:** Kakerre?

**XURRUPERO:** Kakerre.

**PERTTOLI:** Gizon ergela?

**XURRUPERO:** Zertako ergela?

**PERTTOLI:** Xuriek nahi bezala erabilki dute... Etxez etxe, hura ibilia da, hekien bozetako paperrekin... Gaizo trixtea! Zerbaitekin da, hori, Maddik ez badu maite!

**XURRUPERO:** Eta Maddiri gustatzen bazaio?

**PERTTOLI:** Kakerre bezalako gizon mindua. Maddik nahi ote luke?

**XURRUPERO:** Kontu, kontu, Perttoli.

**PERTTOLI:** Baina... enuxenta ere da!

**XURRUPERO:** Enuxenta ama ez enuxenta, kontu hari.

**PERTTOLI:** Ta, gero, gizon gosea da Kakerre (*kontuarreko aldea erakutsiz*) eta nausia, zikoitza! Ez dira dotearen gainean ados izanen.

**XURRUPERO:** Nehork ezin erran (Biak ixilik gelditzen dire; gero!)

**PERTTOLI:** Zer egin behar dut bada orduan?

**XURRUPERO:** Erran dautzutan bezala, ernatu.

**PERTTOLI:** Ernatu, ernatu... bigarren baizik ez bainaiz orduan?

**XURRUPERO:** Hobe duzu oraino, hirugarren baino.

**PERTTOLI:** Zer, orai, hirugarren bat ere ba othe litake?

**XURRUPERO:** Zertako ez? Maddik ere bere gostuko norbait izan dezake.

*(Ostatu aintzinean dire KAPITAINA eta ERRIENTA. PERTTOLI eta XURRUPERO hekieri begira)*

**XURRUPERO:** To, gure Jainkoa debruarekin heldu! Beha! Kapitan zaharra eta Errienta!

**KAPITAINA** (*kanpoan*): Errepublika, errepubleka! Beti hori dezabilkazue ahoan, Errepublikaren hazteko eta asetzeko sortuak bagine bezala.

**ERRIENTA** (*beti kanpoan*): Bainan...

**KAPITAINA:** Zaude ixilik bada; berdin jakitate ttipiko gizona zare... jakitate ttipikoa.

(*ERRIENTA athe aintzinean utzirik, KAPITAINA ostatuan sartzen da, kolera gorrian*)

**PERTTOLI:** Kapitaina sartzen da; ederki etorria duzu.

**XURRUPERO:** Ba, laster frogatuko dauiat, Errient purtxila, inoran miserable bat haizela.

**PERTTOLI:** Agur, Jauna!

**KAPITAINA** (*PERTTOLIrri kasurik egin gabe, kanporat buruz*): Eskuara ahantzi eta frantsesa ez ikasi. (*XURRUPEROK PERTTOLIrri keinu egiten dio, eta atheratzen da*) Eta oraino haurreri zerbait irakasteko pretenzioea...

**PERTTOLI** (*MADDALENI*): Orai ere zuen aitaxi ta hizkatuak dire.

**KAPITAINA:** Bi solas bat bertzeari lotzen ez jakin eta arrazoinka ari nahi!

**PERTTOLI:** Bere kexuan ez niri ohartzen ere.

**KAPITAINA:** Ez daukat hire burua apotxar!

**PERTTOLI:** Zer erran ote dio Errientak, hola sumintzeko (*KAPITAINAri*) Errazu Jauna...

**KAPITAINA:** Hortaraz geroz, aski duk amari haur egiten erakustea.

**PERTTOLI:** Jauna!

**KAPITAINA:** Gut jakin, eta zernahi haizela uste. Urde!...

**PERTTOLI:** Othoi, Jauna!

**KAPITAINA:** Politikan hik sudurra sartu nahi! Debru Kattalin gorri!...

**PERTTOLI:** Othoi, Jauna, othoi!

**KAPITAINA:** Hi gure herrian buru? Ez gintuzket, to gizonik gabe!

**PERTTOLI:** Othoi bada, Jauna, hitz bat banuke zuri errateko.

**KAPITAINA:** Zure zerbitzari (*PERTTOLIrri gehiago kasurik egin gabe, kanpora beha*) Ez diagu, ez holakorik onhartuko.

**PERTTOLI** (*Bere buruari*): Oraikoan uste nuen, bainan ez nau ezagutzen ere.

**KAPITAINA:** Holakorik guk onart? Ez orai, ez gero. Sekulan santan.

**PERTTOLI** (*MADDALENI*): Ixtant bat utz gaitzazu bakarrik. (*KAPITAINAri*) Zer zaitu, hola kexarazten?

**KAPITAINA:** A! Bazinaki!

**PERTTOLI:** Zerk bada?

**KAPITAINA:** Errient txar horrek errabiarazten nau! Beilako ahuntzaren gisan, buka lulze bezain labur du izpiritua.

**PERTTOLI:** Zer nahi duzu! Adina ere hor da...

**KAPITAINA:** Adina? Ez dun egundaino haurraren adimendua ere izan.

**PERTTOLI:** Utz-zazu, Jauna, hori burutik.

**KAPITAINA:** Hats onean naiz, hori!...

**PERTTOLI:** Zure baitara zaite... Banuke...

**KAPITAINA:** Errepublika eta barrika!

**PERTTOLI** (*bere buruarekin*): Litaniak berriz haste. (*KAPITAINAri*) Othoi adi azu Jauna!

**KAPITAINA:** Iñorant txarra!

**PERTTOLI:** Itxinan, Jauna, adi-azu bada!

**KAPITAINA:** Eskuara ahantzi eta frantsesa ez ikasi.

**PERTTOLI:** Othoi, Jauna.

**KAPITAINA:** Ez daukala bere burua apotxar!

**PERTTOLI:** Baliteke...

**KAPITAINA:** Pitsik ez jakinki eta amari haur egiten erakutsi nahi!

**PERTTOLI:** A ba?

**KAPITAINA:** Politikan, horrek sudurra sartu behar?

**PERTTOLI:**

**KAPITAINA:**

**PERTTOLI:** Zuk errazu!

**KAPITAINA:** Debru kattalin gorri!

**PERTTOLI:** Izengoitia ez du gaizki emana.

**KAPITAINA:** Hori gure herrian buru?

**PERTTOLI:** Ez da oraino hala.

**KAPITAINA:** Ez dugu holakorik onhartuko.

**PERTTOLI:** Ahalez ez, behar ere.

**KAPITAINA:** Ez orai, ez gero, sekulan santan.

**PERTTOLI** (*kanporat buruz, aitzinean kapitainak bezala eginez*): Iñorant txat bat zare zu, eskuara ahantzi eta frantsesa ez ikasia. Ez daukazu zure burua apotxar! Pitsik ez jakinki eta amari haur egiten ikasi nahi! Politikan sudurra sartzen baduzu, guk

sudurrean mutarda sartuko dautzugu. A Kattalin Gorri. Ez zare sekulan-santan mera izanen, deprurik ez baduzu.!

**KAPITAINA:** Ez eta debruak berekin balinbaditu ere.

**PERTTOLI:** Atxik hori! (*KAPITAINA*ri) Harek badu bethi bere partea. Orai, Jauna, adi nezazu! Kontseilu bat badautzut galdatzeko. Gauza serioa da, arras serioa... (*KAPITAINA* *kasu egiten balu bezala egiten du*) Zureganik nahi nuke jakin, ongi eginen dutanez ezkontzea... Presuna xarmanta da eta propia eta... eta biziki gustatzen naiz. Bainan aitak bertze norbait omen dio hautatua. Zu gizon aditua baitzare zer konseilatzen dautazu?

**KAPITAINA:** Errient txar horren pretenzianean?

**PERTTOLI:** Hauxe da gizona!... Jendea mintzo zautzu eta ez duzu kasurik egiten!

**KAPITAINA:** Othoi barka. Zer nahi duzu..., nere kolerrarekin.

**PERTTOLI:** Utz zazu denak bazterrerat eta adi nezazu.

**KAPITAINA:** Bon. Zer da zure arrangura?

**PERTTOLI:** Badauzut zerbait errateko.

**KAPITAINA:** Nola mintzatu gogo duzu?

**PERTTOLI** (*Harrituarena eginez*): Nola mintzatu gogo?

**KAPITAINA:** Bai!

**PERTTOLI:** Ta, mihiarekin, Jauna, zerekin nahi duzu mintza nadin?

**KAPITAINA:** Zoin mintzaretan ari gogo duzun, galdatzen dautut.

**PERTTOLI:** A! Hau bertzerik da.

**KAPITAINA:** Italianoz ari gogo duzu?

**PERTTOLI:** Ez!

**KAPITAINA:** Españolez?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Portugesez?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Frantsesez?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Alemanez?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Anglesez?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Kaskoinez?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Latinez?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Grekaz?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Ebreoz?

**PERTTOLI:** Ez.

**KAPITAINA:** Ziriako?

**PERTTOLI:** Ze zire?

**KAPITAINA:** Ez du munta... Turkoz mintzatu gogo duzu?

**PERTTOLI:** Ez Turko?

**KAPITAINA:** Rusianoz?

**PERTTOLI:** Eez!

**KAPITAINA:** Japonesez?

**PERTTOLI:** Ez eta ere.

**KAPITAINA:** Arabez?

**PERTTOLI:** Ez gizona, ez, eskuaraz, eskuaraz...

**KAPITAINA:** A! Eskuaraz!

**PERTTOLI:** Azkenean!

**KAPITAINA:** Pasa zaite beraz bertzalderat. Beharri hau, mintzaira arrontzentzareko dut; bertzea eskuararentzatekoa.

**PERTTOLI** (*Bertzalderat iraganik*): Hunen jestuak!

**KAPITAINA** (*seriosenean*): Zer nahi zinautazun.

**PERTTOLI:** Kontseilu bat galdatu.

**KAPITAINA:** Botzez?

**PERTTOLI:** Zera...

**KAPITAINA:** Norbait etxean boz-emaiterat ezin ethor?

**PERTTOLI:** Bakarrik naiz etxean. Bainan...

**KAPITAINA:** Hauzoan beraz?

**PERTTOLI:** Ez, ez. Bainan zera...

**KAPITAINA:** Ahaidetarik?

**PERTTOLI:** Ez eta ere. Bainan, zera dut....

**KAPITAINA:** Argitasunik behar?

**PERTTOLI:** Preseski.

**KAPITAINA:** Lixtan diren gizonez?

**PERTTOLI:** Ba zera.

**KAPITAINA:** Botz emateko manieraz?

**PERTTOLI:** Ez, ez, ez, ez.

**KAPITAINA:** Botzetako tenorez?

**PERTTOLI:** Ez, ez eta ezetz. Ez dautzut bozik ez boz ematerik aipatzen!

**KAPITAINA:** Errazu beraz, zerkariaz heldu zaren nereganat. Ni, ez naiz alabainan sorgina, pentsatzeko.

**PERTTOLI:** Mintzatzerat uzten baninduzu Jauna! (Biak betan mintzo dira aitzina PERTTOLI bereari) Huna zer erran nahi nautzun: Ezkondu nahi nukela... neskaxa eder batekin. Gostuko nuke, bainan...

**KAPITAINA** (*PERTTOLik erran artean*): Gizonari mihia mintzatzeko emana zaio. Nola gogoetak, gauzen itxurak baitire,... hala-hala eleak gogoeten itxurak dituzu (*PERTTOLik, kexaturik, ahoa eskuz behin baino gehiagotan tapatzen dio. KAPITAINA aitzina ari da, PERTTOLik eskua kentzen duen bezain laster.*) Bainan itxura horiek, gainerateko iduriak ez bezalakoak dire, zeren gainerateko iduriak, lehenetarik bertzelakoak izaten dire; mintzoak aldiz, berekin dauka bere lehena... Horra zergatik, gogoia xuxenenik derabilkatenak, diren ere hobekienik mintzo... Mintzoa denaz geroz, argitaratzeko biderik hoberena, mintzoaz emadazu, beraz gogoan duzunaren berri.

**PERTTOLI** (*Hasperen batean*): Hau gizona! (*Kanpora badoa*)

**KAPITAINA** (*aitzina*): Ba, mintzoa bihotzaren adiarazle eta gogoaren itxura. (Leiho aitzineko kadiraren gainerat hupaturik kanporat buruz) Mintzoa, itxura bat da, lañoki gizonaren barneko berri ematen daukun itxura... Eta... gogoetan aritzeko eta mintzatzeko ahala baduzunaz geroz zergatik ez duzu mintzoaz bahatu nahi?

**PERTTOLI** (*kanpotik*): Ez dut bertzerik galdetzen, bainan ez nauzu aditu nahi!

**KAPITAINA:** Beharri huntaz zuri nago, emazu bada. Gehiago dena, eskuaraz adierazten ahalko duzu, adierazi gogo duzuna.

**PERTTOLI** (*Errotua*): Bearrondoko bat ba gogotik (*Gero, iduri deusez*) Erraten nautzun beraz, Jauna...

**KAPITAINA:** Laburki errazu, erran gogo duzuna...

**PERTTOLI:** Ba, ba, ahal bezain laburki.

**KAPITAINA:** Ez ar inguru-minguruka.

**PERTTOLI:** Bainan, Jauna...

**KAPITAINA:** Motz behar ez diren guziak...

**PERTTOLI:** Ez dut oraino, gizona, ele motz bat ateratzen ahal izan...

**KAPITAINA:** Luzeegi, luzeegi da...

**PERTTOLI** (*kexaturik*): Nork ikusi du holako gizon bizirik!

**KAPITAINA:** Zer sumintzen zare, erran gogo duzuna errateko orde? Hori errient purtxila baino areagokoa zaitut zu...

**PERTTOLI:** Hori (*errota-kalaka*) elhe eihera.

**KAPITAINA:** Ni, jakitadeduna naiz, eta jakitate handikoa.

**PERTTOLI:** Ez oraino ixiltzen...

**KAPITAINA:** Eta ez intraleko gizona, ni... (*kanporat abiaturik*) Jakitate guzietan aditua. (*Gibelat*) Jakintsuna, jakintsun handia... (*kanporat buruz*) Lehe zaharreko ixtorioen ala berrikoen berri dakien gizona, (*Gibela*) Badakizkat oro, paterra bezala, gramatika eta matematika; (*kanporat*) Mediku, barbier, marexalga, (*gibelat*) laborantza, arraintza, hargintza, zurgintza ala zapataintza, (*sukaldetik atheratzean*) politika eta mekanika.

*(Kanpotik heldu da MADDI)*

**MADDALEN:** Ha, ha, ha, ha, ha... Ikusi dun?

**MADDI:** Nor, aitatxi?

**MADDALEN:** Ha, ha, ha, ha, ha...

**MADDI:** Zer dun, gaixo gizonaz hola trufatzeko?

**MADDALEN:** Trufatzen zer nahun; bainan nola egon irri egin gabe.

**MADDI:** Hau neska.

**MADDALEN:** Hemen izan bahintz, hik ere irri ederrik eginen hien.

**MADDI:** Irri?

**MADDALEN:** Nik irri eta irri egin dutala... Erraten daunat, hik bietan eginen huela! Eta goxora oraino.

**MADDI:** Ez dinat pitsik konprenitzen.

**MADDALEN:** Perttolik-eta helen egina duten komedia, ikusi beharko huen.

**MADDI:** Zer bada?

**MADDALEN:** Perttoli hitaz agradoa dun... Ha, ha, ha, ha, ha...

**MADDI:** Zer erraten dun? Perttoli? Ha, ha, ha, ha, ha...

**MADDALEN:** Baietz... eta Xurrupero eta biak bulta on bat hemen egonak ditun... eta... Perttoli sekretuka aritua zaion.

**MADDI:** Nitaz?... Oi, oi, oi, oi, oi!

**MADDALEN:** Ni sukaldetik hunat eta hemendik sukalderat ibilki nindunan... eta uste zeitenan ez nuela konprenitzen nortaz ari ziren? Ha, ha, ha, ha, ha!

**MADDI:** Zer du nere ondotik abiatu gogo?

**MADDALEN:** Ba, ta nola.

**MADDI:** Nahiko nintinan aditu.

**MADDALEN:** Bazkaitean kondatuko. Ez dun berdin aita hemen izanen; ihizirat gana dun eta eguna pasa din nik uste. Aitatxi berriz, igande guziz bezala ttanttarekin bazkalduko dun.

**MADDI:** Bazakina, aitag Kakerre daukala neretzat?

**MADDALEN:** Perttolik ez zakinan. Xurruperok salatu zaion.

**MADDI:** Nere Michel hemen balitz, zer irriak egin letzazken.

**MADDALEN:** Gurekin bazkaltzerat ekarrarazten bahu?

**MADDI:** Egia, hala egin behar dinau. Irriz urak eginen ditinagu hiruek eguerditan.

**MADDALEN:** Nun atxemanen dun?

**MADDI:** Meza nausian oraintxe ikusia dinat; komuniatzen ere zunan. Mezatik lekurat erreboteko alderat jo din.

**MADDALEN:** Barurik?

**MADDI:** Ba segur pilotan ari dun. Gaki naun ikusterat.

**MADDALEN:** Perttolik ikusten bahu, muñuka berdin etorri zau, karrikaren erdian.... ha, ha, ha, ha, ha, ha...

**MADDI:** Ixilago eman... Hor dun gero!

**MADDALEN:** Erriente ere hor baita?... Batere, azkenean ez daunat erran... aitatxi erriente zaharrarekin izkaturik, ertua sartua dun etxean. Eta hemen aritua dun Perttoliri, ekualako katiximan. Hori ninan bada oixtian... Ha, ha, ha, ha...

**MADDI:** Adituko haute, Maddalen.

**MADDALEN:** Hoa, hoa Michelen gonbitatzerat... Ixtantean denak kondatuko...

*(MADDALEN sukalderat abiatzen da eta MADDI ateratzen da)*

**MADDI:** (atetik gibelerat etorririk): Zer tenore dun?

**MADDALEN:** Hamaikak eta erdiak joak.

**MADDI:** Hobe dinat naski etxe gibeletik, gizon horiek ez ikusteko. Michelekin ere diretuki sukaldelat etorriko naun.

**MADDALEN:** Hobe duzue, ba. Nahi niken, Perttoli-ta, berriz etor balite.

**MADDI:** Ez giniken pesta txarra behar.

*(Bi ahizpak suntsitzen dire)*

**ERRIENTA** (*PERTTOL*Iri ate aintzinean agertzean): Ta, Xurrupero ez da sartzen?...



**PERTTOLI:** Ez da urrun izanen. Ur-xuriaren egiterat gana da... Ez da harritzeko bearturik ere: goiz huntan badu zerbait edanik.

**ERRIENTA:** Botz horriek errotzen naute. Hemen sartzea aski dut...

**XURRUPERO** (*Atetik sartzean*): Judu herratua bezala zare, zu beraz, Jauna.

**ERRIENTA:** Zer judu herratu?

**XURRUPERO:** Ez duzu ezagutzen judu herratuaren kantua: (kantuz)

*Sar ere baintake zuekin ostaturat*

*Edan ere banezake zuen arno onetik.*

*Jarriko ez naiz, bainan egonen naiz xutik*

*Tormentek hartzen naute, oi jarriz geroztik.*

**ERRIENTA:** Jarririk edo xutik, nahi duzuen bezala, bainan zertarik edanen duzue?

**PERTTOLI:** Nahi duzunetik.

**XURRUPERO** (*iduri ez nahi*): Berriz edaten ari behar dugu?

**ERRIENTA:** Ta zertarat etorriak gare bada hunat?

**XURRUPERO:** Zerbait behar da pentsatu halako hotzekin, kanpotik hotz, gure barneak bederen beto ditzagun.

**ERRIENTA:** Gorritik?

**XURRUPERO:** Zer bada...

**PERTTOLI** (*XURRUPEROrekin batean kasik edo berehala gero*): Alabainan?

**ERRIENTA:** Niri emanen duzue, dudarik gabe, botza?

(*MADDALENEk zerbitzaturik pinta arnoa, hiruak edaten*)

**XURRUPERO** (*klikakoan basoa husturik*): Ni, ez naiz hemengoa Jauna.

**ERRIENTA:** (*Berriz basoa beterik*): Berdin erran nahi du...

**XURRUPERO:** Ez baitut ordea boza hemen emateko eskurik: Espainean ekarria naiz.

**ERRIENTA:** Ez da munta. Ori, bertze pinta bat pagatzen dut.

**XURRUPERO:** Ez munta, ez munta... Ez du muntarik, pagatzen ahal duzu beraz. (*Berriz basoa husten du*)

**ERRIENTA:** Eta zu Perttoli? Ez duzu pitsik erraiten.

**XURRUPERO** (*Xutiturik*): Ah, Jauna... Perttolik ere hemen jartzea aski du. (*kantuz bururatzen du*) Tormentek hartzen dute, oi, jarriz geroztik... (*Gero aintzina mintzo*) Milesker, Jaun Errienta. Perttolik baitauzu sekretu bat errateko... banoa. Eginen duzu Baskarri Jaunak.

(*XURRUPERO areratzen da; ERRIENTAk pagatzen du*)

**ERRIENTA:** Zer duzu Perttoli?

**PERTTOLI** (*MADDALENi*): Ixtant bat utzi behar gaituzu, Maddalen.

**ERRIENTA** (*Astira*): Perttoli, ez zaitela hola deblauki mintza. Ez dira gauzak zir-tzar erran behar, baina behar-badaka... Ez erran beraz: kontseilu baten beharretan naiz; bainan iduritzen zaut, kontseilu baten beharretan naizela.

**PERTTOLI:** Iduritzen?

**ERRIENTA:** Ba, iduritzen. Hola... Hola.

**PERTTOLI:** Ori, hau pollita dugu... Iduritzen zait ba, hala denaz geroz.

**ERRIENTA:** Ez uste izan, hal delakotz, zaitzula iduritzen; iduritzen ahal ez izanik ere.

**PERTTOLI:** Nola hori? Ez da egia, kontseilu beharretan naizela? Eta zuk entzuten nauzula?

**ERRIENTA:** Ez preseski. Iduritzen zait hor zarela; eta iduritzen zait mintzo naizela; bainan ez segur.

**PERTTOLI:** Zu ez bazara segur, ni hala naiz.

**ERRIENTA:** Uste duzula erran duzu.

**PERTTOLI:** Trufakor zare naski? Huna ni eta horra zu. Ez hor "uste" eta "musterik". Dena den, iduritzen ala ez iduritzen, utz dezagun, otoi, miki-maka horiek... Nere arrangura erran behar dautzut: Ezkondu gogo dut.

**ERRIENTA:** Batere ez dakit.

**PERTTOLI:** Erran dautzutanaz geroz...

**ERRIENTA:** Baditake.

**PERTTOLI:** Andretzat hartu gogo dutana, neskatxa gazte bat da, xarmanta eta propia.

**ERRIENTA:** Ez da ez ditakena.

**PERTTOLI:** Ongi eginen dut ezkontzea?  
**ERRIENTA:** Behar bada ba, behar bada ez...  
**PERTTOLI:** Jesus... Hauxe da ixtorioa... (*ERRIENTAri buruz*) Galdetzen dauzut, Jauna delako neskatarekin ezkonduz, ongi eginen dutanez.  
**ERRIENTA:** Nola den.  
**PERTTOLI:** Gaizki eginen dut.  
**ERRIENTA:** Behar bada.  
**PERTTOLI:** Othoi, behar den bezala mintza zaite.  
**ERRIENTA:** Hala egin gogo dut.  
**PERTTOLI:** Arras gogoko dut neska hura...  
**ERRIENTA:** Izan ditake.  
**PERTTOLI:** Bakarrik neskaren aitak bertze gizon bat dauka beretzat.  
**ERRIENTA:** Hori ere gerta ditakena.  
**PERTTOLI:** Eta orduan ni onhart ote nindezake?  
**ERRIENTA:** Beharbada, ba, beharbada ez!  
**PERTTOLI:** Zer diozu hortaz?  
**ERRIENTA:** Pitsik ez!  
**PERTTOLI:** Bainan, zer egin zinezake nere plazan?  
**ERRIENTA:** Ez dakit.  
**PERTTOLI:** Zer egin behar dut zure iduriko?  
**ERRIENTA:** Nahi duzuna.  
**PERTTOLI:** Errabiarazten nauzu ori.  
**ERRIENTA:** Ez naiz kexu, jazko haizeaz baino gehiago.  
**PERTTOLI** (*kexaturik*): Debruak ibiliko haute, ez baduk gizonki mintzatu gogo!  
**ERRIENTA:** Geroak erranen hori.  
**PERTTOLI:** Ez haiz, Kattalin-Gorri, bertzeak bezala mintzatzen ahal. (Behar-ondoko bat ematen dio) To!  
**ERRIENTA** (*Xutiturik*): Ah!, ah!...

(*PERTTOLI ere xutitzen da*)

**PERTTOLI** (*lurrari beha bere buruari ari balitz bezala*): Aski eman nahia egoki ninduan.  
**ERRIENTA:** Zer... Niri holako afruntua... NI bezalako errient errespetagarria... hola erabiltzeko kopeta baituk... Dohakabea...  
**PERTTOLI** (*Astira aintzinean ERRIENTAK bezala*): Ez zaitela hola deplauki mintza... Ez dire gauzak zir-tzar erran behar, bainan behar-badeka. Ez erran beraz: mazelako bat ukan dut; bainan hola iduritzen zauzula.  
**ERRIENTA** (*kanporat berriz abian*): Jandarmetarat noa?  
**PERTTOLI:** Ez naiz kexu jazko haizeaz baino gehiago.  
**ERRIENTA:** Errien marka matrailean dut oraino.  
**PERTTOLI:** Bazukek.  
**ERRIENTA:** Plenta ekarriko diat kontra.  
**PERTTOLI:** Egizak nahi dukana.  
**ERRIENTA:** Garrazki kondenatua izanen haiz.  
**PERTTOLI:** Geroak erranen dik hori. (*Bere buruari*) Hau komedia.

(*MADDALEN sartzen da*)

**MADDALEN:** Zer zinuten ola kexatzeko?  
**PERTTOLI:** Ez ditake pitsik adieraz edo erranraz gizon bitxi horieri... Zuen aitatxi handitua bazen hartua. Errienta berriz lanjerosa... eta ni aintzinean bezain asto. (Ateratzen da)

(*MICHEL eta MADDI sukaldeetik ateratzen dire*)

**MADDALEN:** Egun hemen den komedia...  
**MADDI:** Orain Perttolik behar liken agertu, bazkariten ari giren artean.  
**MADDALEN:** Eta Kakerre?

**MADDI:** Aita hartaz arras hartua dun; Bainan bazakinat zer egin, burutik hura aterarazteko eta... Kakerre bera hotzararazteko: Hunat agertzen delarik... kexa errexa baita... errabiaraziko dinat eta burutik ganaraziko.

## II

(*Sukaldean, ostalera bera. Su handi bat. Atean norbait joka. ANDREsek idekitzen du. Agertzen da KAKERRE, beltz-beltzak bezti eta ttattaretan*)

**ANDRES:** Kakerre da ta. Gaizo Kakerre...

**KAKERRE:** Arratsalde on, Andres.

**ANDRES:** Bainan egun, Eguberri biharamuna, ta zu soineko horiekin? Zer zare, segu enterramendu batetarik heldu...

**KAKERRE:** Ez jauna. Zureganat bisitaz etortzeko ateratua naiz doi-doia etxetik.

**ANDRES** (*Irri aire batean*): Ea ahal ditutzu bada, niri "arratsal on" errateko, soinean eman arropa hoberenak?

**KAKERRE:** Gauzen ongi egiten, badakigu jauna. (*Sakelatik esku larru xuriak atheratzen ditu, lanik aski ematen baitiote errietan sartzea*)

**ANDRES** (*Ostatu barnetik arnoa ekarririk basoak betetzen ditu*): Jar zaite hor, tresna zu... Eta zure osagarriari.

**KAKERRE:** Minuta bat, plazer baduzu. (*Paper handi bat sakelatik ateraturik eta zabaldurik, irakurtzen hasten da, bi eskuz atxikiz*). "Xuritegiko Nausiari". Nausia:

**ANDRES:** Hunen jestuak...

**KAKERRE** (*Aitzina*): "Beti ongi-etorria dugun etxe maitagarri huntan, oinak pausatzen ditut egun, zuri nahiz eskatu..."

**ANDRES:** Zer?

**KAKERRE** (*nekez irakurtuz*):... "Zuri nahiz egin galde bat".

**ANDRES:** Ez balinba?...

**KAKERRE:** "Galde bat, zure ohoretan eta... nere onetan. (*Hatsa hartzen du. Gero aintzina irakurtuz*) *Aspaldiko urtetan, adixkide... adixkide...*"

**ANDRES:** Errazu, erran gogoan duzuna.

**KAKERRE:** Barkatu, begirat lanbro bat etorri zait, eta lerroa galdu dut.

**ANDRES:** Burua ere lerroarekin naski? Zure baitara zaite.

**KAKERRE:** "a...a... adixkide hoberenak izaki eta... nik bihotza beratza.

**ANDRES** (*Bere buruari*): Zerbait pretentione badik hunek.

**KAKERRE:** "...eta sortzez ahalkatia... bizi guzikotz uros eginen nauen urrats hau ez da gauza errexa... (*papera lurrerat uzten du bere ikaran*) Ai Andres! Ez zadazula ezetz erran; bertzela trenputxar nintake eta irriskatzen nuke hiltzea!

**ANDRES** (*Bere buruari*): Zeren ondorik ote dabila, Maddiren dote partearen?

**KAKERRE** (*Berriz papera eskuan*): "Xuritegiko", ez, "Xuritegiko", bo, "Xori..." Oh! "Xuri... Xuri... Xuritegiko nausiari... Nausiari... nausiari." Ooo... Bihotz pilpirarekin, izpirituak eta denak nahasten zaizkit; ez dakit gehiago zer erraten dutan.

**ANDRES:** Aditzen zaitut, aditzen ederki. Bainan maluruski...

**KAKERRE:** Maluruski?

**ANDRES:** Ostatua bethi hutsa.

**KAKERRE:** Bethea ontsa?

**ANDRES:** Gorri politikero horiek direla medio, ez da gehiago nior gure etxerat heldu.

**KAKERRE:** Ez dira gauz'onik horiek.

**ANDRES:** Prezioak denak goiti ari, eta tatsak, dretxoak, zergak eta zerak...

**KAKERRE:** Badakit bainan...

**ANDRES:** Nork berak daki bere txerriaren berri, ez da hala?... Ez ditakerik ez ditake. Gauza den bezala erran behar da. Ez da hortan desohorerik. Eta, gu, beti adixkide izanen gare orai arte bezala.

**KAKERRE:** Ez dut ikusten, zertarat ari zaren. (*Iduri deus ez, aitzina irakurtzen du*)... "Nausia, beti ongi etorria dugun etxe maitagarri huntan..."

**ANDRES:** Zenbat behar duzu?

**KAKERRE** (*Aitzina*): "Oinak pausatzen ditut egun..."

**ANDRES:** Zenbat?

**KAKERRE:** "Zuri nahiz eskatu..."

**ANDRES:** Zenbat, errazu bada zenbat?

**KAKERRE:** "Andretzat zure alaba Maddi..."

**ANDRES** (*Betbetan xutiturik*): Nere alaba?

**KAKERRE** (*hasperen batean*): Zure alaba, nere Maddi...

**ANDRES**: Nere alaba zuretzat nahi duzu?

**KAKERRE** (*hasperen batean*): Zer lori nukenu...

**ANDRES** (*KAKERREri bizkarrean eta tripan joka*): Gaizo Kakerre... Zato besarka zaitzadan...  
Badakizu jada zuretzat naukala. (*Besarkatzen du*)

**KAKERRE**: Nausi maitea...

**ANDRES**: Aita erradazu.

**KAKERRE**: Gauzak ongi egiteko, egun nahi nuen, behar bezala galdea eginik, zure baia aditu.  
Uste duzu, Maddik ere, baietz erranen duela?

**ANDRES**: Ez dudarik izan. Nik galdatua egingen du... Josten ari da ahizpa gaztearekin. Igorriko dauzute. (*ANDRES atheratzen da*)

**KAKERRE** (*Bakarrik, jendeari buruz*): Irri egiten duzue? Ez dut nik irrik. Izerditan eta daldaran nago... Hau zintzurereko traba... Koropilo bat banu bezala eta bihotza pilpiran...  
(Eskua bihotzaren gainean) Jo eta jo ari zait... Ez banaiz oraino aldi-txartzen, erranen dautalarik: baietz... baietz erranen daut?

Hala erranen du. Huna zertako: anitz muthiko gaztek har lezakete... Bainan Maddiren aitak ez ditu nahiko; errepublikano gorasta horietarik baitire oraiko muthiko gazteak...  
Gorrastak... hala erraten diote bederen; egia erran, horietan ere bada denetarik elizatiarrak ere.

Xo... ah... Horra Maddi heldu... Ago ixilik, bihotza; xo... xo!...

(*MADDI sartzen da*)

**MADDI**: Zu. Zu zare Kakerre.

**KAKERRE**: Ba.

**MADDI**: Ori ez nuen hala uste.

**KAKERRE**: Aitak ez dautzu erran?

**MADDI**: "*Hoa sukalderat, erran daut aitak, norbeit badu hire galdez*"

**KAKERRE**: Deusik ez aipatu?

**MADDI**: Bainan hauxe da... zein ederra zaren. Ezteietarat abian edo zer?

**KAKERRE**: Oraino ez... (*Bere buruari*) Ez naiz sekulan menturatuko. (*MADDIri*) Segur zare, aitak ez dautzula bertzerik deusik erran?

**MADDI**: Zertaz?

**KAKERRE** (*ahal bezala*): Huna, erran nion... zuri... ba... nitaz.

**MADDI**: Ez daut zutaz deus erran, Kakerre.

**KAKERRE** (*bere buruari*): Deliberatu beharko diat! Baitezpada beharko deliberatu.

**MADDI**: Zer?

**KAKERRE**: Pitsik, pitsik.

**MADDI**: A, barkatu, beraz. Uste nuen...

**KAKERRE**: Zera.

**MADDI**: Nola?

**KAKERRE**: Nere buruarekin ari nintzen. Egiten nuen: "*Deliberatu beharko diat baitezpada*"...  
Maddi maitea, adi nezazu. Othoi, adi nezazu!

**MADDI**: Aditzen zaitut ba!

**KAKERRE**: Adi nezazu beraz; bainan adi nezazu niri behatu gabe; zeren behatzen bazira ezagutzen dut, errateko ditudan guziak ez dauzkitzudala erraten ahalko... Eta nahasten banaiz, barka otoi, zeren arrunt nahasia banaiz...

(*Ezkerreko sakeletik paper bat ateraturik*)

"*Mihi maitea*"... ez "*Maddi maitea*"... ikusten duzu (*tarrapatan aitzina irakurtzen du*) "*Maddi maitea, aspaldiko urtetan zuen familia ezagutzen dut; eta gure aitatxi zenak - Jainkoak berekin duela-. Badakizu baratzeke keta, hiltzean, onodriotzat utzi baitzaukun, beraz, gure aitatxi zenak estimu haunditan zuen orduko hemengo nausia zuen aitaren aitatxi zena...*"

**MADDI**: Eta gero?

**KAKERRE**: Zaude minuta bat, Maddi maitea, huna zertarat ari naizen: Erraten nuen beraz...  
(aitzina irakurtzen du) "*Kakerretarrak eta xuritegitarrak betidanik elgarrekin ongi*"

*dohatzi hauzo giza. Funtsak ere bat bertzearen aldean ditugu zuek eta nik, hain aldean, nun nere lur mutur bat, zuen baratzean barne heltzen baita.*

**MADDI:** Nun?

**KAKERRE:** Utz nezazu erraterat.

**MADDI:** "Nere lur muthur bat" ez duzu erran?

**KAKERRE:** (batere durduzatu gabe): Ba, "Nere lur muthur bat" erran dut.

**MADDI:** Zer erran nahi duzu?

**KAKERRE:** Ta, nere lur muturra, erran bezala.

**MADDI:** Gaizki ari zare.

**KAKERRE:** Ez.

**MADDI:** Ba, zeren lur mutur hori...

**KAKERRE:** Lur mutur hori?

**MADDI:** Gurea da.

**KAKERRE:** Etxe gibleko errekarren eta Fiko ondoaren arte hartaz ari gira?

**MADDI:** Uraren aldeko ipular kantoina, ba.

**KAKERRE:** Nerea da.

**MADDI:** Ez, gurea!

**KAKERRE:** Ez nerea.

**MADDI:** Zurea? Noizetik hunat?

**KAKERRE:** Beti danik Kakerretarrena izan da!

**MADDI:** Beti danik Xuritegitarrena izan da.

**KAKERRE:** Ageriak hor dira, lekuko.

**MADDI:** Herri guziak erranen dautzu...

**KAKERRE:** Nerea dela erranen dute. Ezin ukatua.

**MADDI:** Zaude ixtan bat.

**KAKERRE:** Zaude ixtant bat, zu ere, zu ere.

**MADDI:** Amatxi zenak.

**KAKERRE:** Justu, nere izena Maddi -ttipiron kusinaren amatxik, zure aitaxoren konatari emana zion lur horren gozamina, delako koinataren haurrek beren astoa hor alha zezaten; eta zure aitaxoren koinataren haurrek berrogoi urtez gozatu ondoan berenarentzat zaukaten. Bainan zuen amatxoren koinataren seme zaharrena...

**MADDI:** Ez da hori batere hola... Gure aitaxoren koinataren haurren funtsen barne zen ipular mutur hori. Eta harritzen nauzu; Kakerre...

**KAKERRE:** Zuk ba harritzen nauzula, Maddi maitea.

**MADDI:** Ez dut baitezpada lur mutur horren arran gura.

**KAKERRE (Eztiturik):** Ez nik ere.

**MADDI (ezti-eztia):** Hasteko ez du pipa bat tabako balio. Ez da hor ihi basa, tipula eta naharrik baizik heldu.

**KAKERRE:** Ez zaitela, Maddi maitea, hola kexa... Badakizu, astoa ere nere ttanta Maddi-tipiaren kusinaren amatxik eresia ziotela, zuen aitaxoren koinataren haurreri... Eta, berdin segurki ongi saristatua izan zen; gaizki ikasien eskerra, pokerra!

**MADDI (iduri samur, idor idorra):** Lur mutur hori gurea da!

**KAKERRE:** Baitezpada nahi duzunaz geroz, hori aski bada zuri plazer egiteko, gogotik present eginen dauzut, Maddi maitea.

**MADDI:** Ze ba! Bertzenetik aise ari zare, Kakerre. Gurea, guri present egiterat prest.

*(KAKERREk zerbait erran nahi du, MADDIk ez du mintzatzerat uzten).* Kakerre, hauzo ona zinen guretzat, eta gu ere zerbitzu egiterat beti prest ginen zurekin. Eta hola erremestiatzen gaitutzu, kasaila bilatuz!!!

**KAKERRE:** Kasaila bilatzen nik?

**MADDI:** Eta... ipular hori, egiazki gurea dela zuri erakusteko, Joseph okerrari pikaraziko diot.

**KAKERRE:** Zer erraten duzu? Zer erraten duzu?...

**MADDI:** Ipularreko bazka pikaraziko, ba, bihar berean, oraino.

**KAKERRE:** Ori, holakorik egizu.

**MADDI (Oihuka):** Zertako ez? Ikusiko duzu.

**KAKERRE (Oihuka):** A! Ez naiz trenpuan...

**MADDI:** Ez duzu iduri!

**KAKERRE:** Trenpu txartuko naizela beldur naiz. Bertzela, adi zeinezake zureak eta asto beltarenak *(Bekoz beko biak betan)*

**MADDI:** Apalago adituko zaitut ba; ez naiz gogorra.

**KAKERRE:** Ez zaitela ar hola oihuka!

*(ANDRES sartzen da. Ate artetik ageri da MADDALEN irriz ari. Hala egonen da gero ere)*

**KAKERRE:** A, nausia nausia, otoi bere baitaraz zazu, zure alaba, gauzak onhart detzan diren bezala.

**MADDI:** Errazu Kakerreri, norena den gure baratzeko ipularra.

**ANDRES:** Gure Baratzeko ipularra?

**KAKERRE:** Uraren eta fiko-ondoaren arteko lur xerrenda, ba.

**ANDRES:** Norena izan ditaken, pentsatzeko da.

**MADDI:** Ikusten duzu, Kakerre.

**KAKERRE:** Erraiten nauzun, Maddi maitea...

**ANDRES:** Ez da hor, uli baten hiltzekorik.

**MADDI:** Ez, ez, segurki.

**KAKERRE:** Segurki ezetz.

**ANDRES:** Gure osabak...

**MADDI:** Gure izebak...

**KAKERRE:** Gure amatxik...

**ANDRES:** Kadastra, kasastra. Aski da kadastran behatzea.

**KAKERRE:** Frogak eskuetan, erakutsiko dauzut, norena den ipularra.

**ANDRES** (*kexatzen hasia*): Tirit eginen duzu, zuk!

**KAKERRE:** Baditut ageriak. Eta hasteko, tematzen bazirezte, bihar berean salgei emaiten dut.

*(MADDI, MADDALENen ganat, handik biak irriz)*

**ANDRES:** Gure ipularra salgei?

**KAKERRE:** Salgei, ba.

**ANDRES** (*gozo-gozoa*): Oba.

**KAKERRE:** bihar ez duzu "Oba" erranen.

**ANDRES:** Gaizo kaiku.

**KAKERRE:** Kaiku, ba. Oraino bertzerik erran nezake balio balu. Kontu, mezu: jujeak han dire jende prestuaren errespetarazteko.

**ANDRES:** Hau, hau gurea. Lehen aitzakiaren ondoan zinabilan, gurekin hauzitan sartzeko.

Ezagutzen zaitut. Hauzitan pasa zinezake bizia. Zinezko aitaren semea. Zinezko aitaren semea. Ergel harek ere zer egina du bere denboran. Hauzitan tturindurik hil zen.

**KAKERRE:** Guardia zuri, gure etxearen fama hunkitzetik, gure familiak ez du zuenari zorrik!

**ANDRES:** Alde egizu hementik, ez baduzu nahi ipurdian ostiko batekin aterraraztea!

**KAKERRE:** Aski hortan, aski!

**ANDRES:** Zoazi, gerla gorri, jujhen erosterat.

*(KAKERRE ateratzen da. ANDRES sukaldean, harat eta hunat, errotua. MADDI, ixil-ixila kaderan jarririk. MADDALEN gorde da)*

**ANDRES** (*MADDIri*): Zer ari haiz hor?

**MADDI** (*serios-seriosa*): Gogoetan ari.

**ANDRES:** Lehenago egin beharrak zitunan, gogoetak. Ez din balio, ursoak gan-eta sareak hedatzea.

**MADDI:** Uste dut, aita ni naizen ursoa. Eta ihiztaria gaterat utzirik ez dut batere urrikirik.

**ANDRES:** Ago ixilik. Muthiko planttako du Kakerre, hik behar bezalako gizona.

**MADDI:** Amen!

**ANDRES:** Berriz bildu behar dinat.

**MADDI:** Zer nahi diozu. Donado egoteko hobe da, mindu hori.

**ANDRES:** Gibelerat ekarrarazi behar dinat. Ez dakin zer galtzen dunan.

*(ANDRES ateratzen da)*

**MADDI:** Kakerre galduz? Irabazten, ba dut nik!

**MADDALEN** (*Ate artetik agertuz*): Lehen partida irabazi dun, Maddi. (*Kantuz*) Bat eta baterez (*Irriz*) ha, ha, ha.

**PERTTOLI** (*ostatutik*): Eup.

**MADDALEN** (*MADDIri*): Perttoliren boza dun hori. Hoa!

(*MADDI ateratzen da. MADDALEN aditzen egoki da. PERTTOLI eta MADDI mintzo ostantan*)

**PERTTOLI**: To, Maddi.

**MADDI**: Perttoli. Nun zabilta tenore huntan?

**PERTTOLI**: Jau hotza. Kanpua baino goxoago dela hemen.

**MADDI**: Zato sukalderat.

**PERTTOLI**: (atetik sukaldeko alderat beatuz) Biak bakarrik zarezte? (Sartzen da eta jartzen)

**MADDI**: Ez gero, ez, gu, nioren beldur.

**MADDALEN**: (maltzurki): Are gutiago zurekin.

**PERTTOLI**: Ez ahal dut Maddi ere izitzen, sarrarazi nuenaz geroz.

(*MADDI eta MADDALEN irri karkailaka*)

(*ANDRES sartzen da kanpoko atetik; MADDI eta MADDALEN elgarren ondoan xutik.*)

**ANDRES**: Kakerre heldu da (*PERTTOLI ikusirik*) Non habila hemen, tenore huntan hi?

**PERTTOLI** (*xutiturik harritua*): Ni? Ni?... ta...

**ANDRES**: Nere alaben ausatzen, ez haiz ahalgetzen, hire adinean hola erabiltzeko?

**PERTTOLI**: Bainan, ez deus...

**ANDRES**: Hoa hementik, Marie Korrilun, xuhur baduk!

**PERTTOLI** (*Gibelka aterat buruz*): Zer! Zer! Zer? (badoa)

**ANDRES**: Hoa, hoa, hoa, eta ez hezadala berriz hemen atxeman... (Alaberi) Eta, zuek zer ditutzue manera horiek? Ez zarezte ahalgetzen adin hortako gizonarekin, ergelkerian. Egia dun errana: Ez dela oiloa, ardia eta emaztekoa baino gauza trixteagorik.

**MADDALEN**: Ez dugu, aita, deus gaizkirik egin.

**MADDI**: Perttoli hormatua zagon osatutuan...

**ANDRES** (*MADDALENi*): Hi, hoa hementik ixilsko gero (*MADDIri*) Bainan, hi, hoin haurra haizela Maddi. (*MADDALEN ateratzen da*)

**MADDI**: Sukaldean sartzerat utzi dugula eta...

**ANDRES** (*Kasurik egin gabe MADDIk zer erraiten dion*): Hara non heldu den Kakerre. Oraikoa eman poliki.

**MADDI**: Ez dut nik, aita, Kakerreren beharrik.

**ANDRES**: Aitak erraten duena eginen dun, hire onetan... (*atean joka norbait*) No, huna non den (*atearen idekitzerat doalarik*) Holako gizonarekin hizkatu naizela. Hire faltaz.

**MADDI**: Nere faltaz?

**ANDRES** (*Gibelat itzulirik*): Hik naun horrekin samurrarazi.

**MADDI**: Nik ez zaitut samurrarazi.

**ANDRES** (*kexu-kexua*): Ez bahitz oihuka ari izan, ez nindunan etorriko.

**MADDI**: Kakerre eta biak oihuka ari ginen, kexu ginelakotz.

**ANDRES**: Preseski, hi kexu ikusiz naun ni ere kexatu. (*KAKERRE, atea joka berriz ere*). Xo! (*Atea idekitzen dio KAKERREri*)

**MADDI**: Biak, utz gaitzazu. (*KAKERRE kanpoko atetik sartzen da*)

**ANDRES**: Arrazoina dun, ba. Antola biak hor. (*Ateratzen da. MADDI eta KAKERRE ixtant bat, ixilik, buruz buru, iduri herabe, gero:*)

**MADDI**: Oixtian, pitta bat kexatu gare, Kakerre.

**KAKERRE**: Barkatu, jartzen naiz. Ez dut nere burua soberatik trenpua hatxematen. (*bere buruarekin*) Hauk zanpakoak bihotzak.

**MADDI**: Barkatu, Kakerre.

**KAKERRE**: Ikara ere badut; beha...

**MADDI**: Pasatuko zaitzu. Edazu trago bat. (*Edaterat eskaintzen dio*)

**KAKERRE**: Ez, milesker. (*Ixtant bat biak ixilirik*)



**MADDI:** Gure ipularrak ez du aipatzea balio ere.  
**KAKERRE:** Gero orhoitu naiz. Zuen da ba lurra.  
**MADDI:** Segurki.  
**KAKERRE:** Huna nola den xuxen: zuen osabaren izebaren semea...  
**MADDI:** Bego bego hortan. Goazen bertze solas.  
**KAKERRE:** Egia; goazen bertze solas.  
**MADDI:** Baia?  
**KAKERRE** (*Ez jakin zer erran*): Ba, ba holaxe.  
**MADDI:** Denbora hotzak ari ditu.  
**KAKERRE:** Ba frango hotzak (ixtant bat biak ixilik)  
**MADDI:** Hotz idorrak.  
**KAKERRE:** Batere ezti baladi denbora, urai egiteko.  
**MADDI** (*kalapita hasi nahiz*): Zertako uria?  
**KAKERRE:** Egia, ez dugu uri beharrik. (*Ixtant bat biok ixilik*)  
**MADDI:** Egiazki sasoineko denbora.  
**KAKERRE:** Ba, neguan behar bezalako aroa.  
**MADDI:** Neguan ere aro goxoak jar ginezazke.  
**KAKERRE:** Ba, gogotik. (*ixtant bat, biak ixilik*)  
**MADDI:** Kakerre.  
**KAKERRE:** Maddi maitea.  
**MADDI:** Ez zara egun hauetan ihizin ibilki?  
**KAKERRE:** Ba, ba, gaten naiz, bainan...  
**MADDI:** Bainan hutsik etortzen gibelat?  
**KAKERRE:** Bo, harma hartzea aski dut, nigarra etortzen zait...  
**MADDI:** Zer dautzute xoriek pena ematen, hiltzen ikustearekin?  
**KAKERRE:** Ez, ez.  
**MADDI:** Espakatzen zaizkitzula ikusteak beraz?  
**KAKERRE:** Ba zera, ez dakizu?  
**MADDI:** Nola nahi duzu, nik jakitea, ez badautazu erraten?  
**KAKERRE:** Eta... nere zakur ihizterra...  
**MADDI:** Batere, ez dut aspaldixko zure Blak ikusten, zer egin duzu, saldu ala galdu?  
**KAKERRE:** EZ sukaldean daukat, maingu.  
**MADDI:** Maingu, gaixoa.  
**KAKERRE:** Zakur ona da. Ongi pagatu ere nuen, alabainan hogoi mila libera...  
**MADDI** (*tzarkeriaz*): Hoinbertze ba?  
**KAKERRE:** Zer, Blak bezalako animalea ezin estimatuzkoa da.  
**MADDI:** Gure aitak, ez du Taio hainbertze pagatua...  
**KAKERRE:** A Taio.  
**MADDI:** Zer Taio...  
**KAKERRE:** Luzeegi du buztana eta burua ttikiegia.  
**MADDI:** Buru ttikiegia? Ta, gureak baino ttikiagoa du zuenak, iduri baitu garratoina. Eta... nork daki zer diren zure Blaken aita-amak?  
**KAKERRE:** Arrazakoa da Blak.  
**MADDI:** Nolaz ditake arrazakoa, aita ate zakurra izaki-eta...  
**KAKERRE:** Zer derasazu.  
**MADDI:** Ez du arrastorik (*bekoz-beko jarrita*)  
**KAKERRE** (*oihuka*): Arrastorik ez Blakek? Blakek ez arrastorik ez duela?  
**MADDI** (*iduri kexu*): Bo, ez eta ondorik ere!

(*ANDRES sartzen da, eta MADDALEN agertzen ate artetik*)

**ANDRES:** Akort zirezte?  
**KAKERRE:** Errauz, nausia?  
**ANDRES:** Zer duzu Kakerre?  
**MADDI** (*artetik*): Gure Taiok, Kakerreren zakurrak baino mutur ttikiagoa du?  
**KAKERRE:** Nahi ala ez?  
**MADDI:** Taiok hala du?  
**ANDRES:** Zer munta du hal izan ta ere?  
**KAKERRE** (*kexu*): hala du!

**ANDRES:** Herriko zakur ihizterrik hoberena da Taio.  
**KAKERRE:** Blak nausi da.  
**ANDRES:** Blak ez da zakur itsusia, baitezpada.  
**KAKERRE:** Ez naski.  
**ANDRES:** Zakur umila ere da.  
**KAKERRE:** Uste nuke.  
**ANDRES:** Eta prestua...  
**KAKERRE:** Nahi bezala biltzen da eskurat. Bo, izigarria da bil errex... Eta...  
**ANDRES:** Baina ihiziko, ez da zakur ume sortu berriak baino geiago balio.  
**KAKERRE:** Ihizin, Blakek ez duela jokorik?  
**MADDI (bazterretik):** Oilo eta ahatekin jostetan ba.  
**KAKERRE:** Zakur arrazakoa, da Blak, gaztea; zernahitarat beti prest da... ez da zuen Taio bezala erdu utsu eta herbaildua...  
**MADDI:** Ez ahal duzu utziko, aita, holakorik erraterat gure Taioz, denak jelos izaki eta... Kakerre bera ere.  
**ANDRES:** Arrazoina du Maddik. Eta balio balu, zerbeit erran nautzuen isilduko baitzintake.  
**KAKERRE (kexu):** Nik ere nahi banu, banuke zutaz zer erran.  
**MADDI (iduri kexu):** Errazu ba linbaduzu zerbait errateko.  
**KAKERRE (hasperen batean):** Ez naiz pataskan arteko trenpuan; alditxartzea belduz naiz.  
**MADDI:** Bihotza eri du, hau, ihiztaria!  
**ANDRES:** Hik erran, hau ihiztari! Ni, pilotari bezala.  
**KAKERRE (MADDIri):** Ez dute denek, zure aitak bezala, ihiziko harma; ez beharrik ere!  
**ANDRES:** Erbiak, urtzintz egitean, haitz bat jo dezala, zu han zare prest, zakua sartzeko.  
**KAKERRE:** Zuk nahiago duzu, harmarekin baino diruarekin merkatuan ihiztatzea.  
**ANDRES (kexu):** Ixil hadi, xuhur baduk, edo lepoa bihurtzen dauiat.  
**MADDI:** Eta zure zakur txarra...  
**KAKERRE:** Aski hola (*hats hantua*)  
**MADDI:** Zure zakur zikina.  
**KAKERRE:** Aski, aski, bada. (*Andarka abiatzen da*)  
**ANDRES:** Zure Blak ez da bare kurkuila, xardin boata eta zer... mokordoen aitzinean baizik arrastan egundaino egon.  
**KAKERRE (hatsa ezin hartuz):** Berinak idek. Fite... mihikua... mihikua... (erortzen da).  
**MADDI:** Alditxartu da.  
**ANDRES:** Ura ekanan ura. (*MADDI ate batetik ateratzen da; ANDRES bertzetik. Bereala sartzen da ANDRES eta KAKERRE erdi-oihuka*): KAKERRE, KAKERRE... OI KAKERRE (*ura bisaiaara aurtikitzen dio*).  
**KAKERRE (bere baitaratuz):** A. A. A.

(*Sartzen da MADDI*)

**ANDRES:** Mintzo dun, mintzo dun....  
**KAKERRE:** Non noiz?  
**ANDRES:** Ez da deusik.

(*KAKERRE kopeta arraskatuz jartzen da*)

**MADDI:** Ez da makurrik (*Denak ixtant bat ixilik*).  
**KAKERRE:** Eta orai... aitor-azue, Blak zakur ona, herriko zakur hoberena.  
**MADDI:** Hoberena? Hoberena? Izatekortan ere...  
**KAKERRE:** Ez da haratik ez hunatik.  
**MADDI:** Eman dezagun zure zakurra... zera dela...  
**KAKERRE:** Ez dut hautsi mautsirik nahi. Gauza den bezala aitor-azue eta banoa.  
**MADDI:** Ori, zoazi, joko aparte, hortxe duzu bidea.

(*KAKERRE, brau xutiturik ateratzen da*)

**ANDRES (MADDIri):** Hau komedia. Ez zareztela akomatuko.

(*ANDRES ateratzen da. MADDI irria ezpainetan gelditzen da*)

**MADDALEN** (*Atea zabaldurik, sartzean kantuz*): Biga ta baterez...

### III

(Ostatu barnean, MADDI afixa handi baten prestatzen, MADDALEN xuriketan)

**MADDALEN:** Aitaren galtzerdiak eta falta ditun, Maddi?...

**MADDI:** Beha zan, ez direnez haren ganberan geldituak?... (*MADDALEN atheratzen da*)

**MADDI** (*Kantuz*):

*Arrosa eder buketako*

*Amodioa gazten dako*

*Behar dudana hemen banu bi begien aitzineko,*

*Doatsuagorik ez litake munduan nehor ni baino.*

**MADDALEN** (*sartzean*): A! Gogoia den tokian indaar.

**MADDI:** Zertaz?... Hik xuriketak bildu orduko, paper hau prest dinat.

**MADDALEN:** Hean? (*Papera eskuetan*) No, holako zerbaiten beharra izanen dinagu, jendea ekarrarazteko. Ez dun gehiago nior ibilki gure etxean...

**MADDI** (*Papera berriz hartuz*): Zer nahi dun gizon horriekin? Beren politika tzarrarekin.

**MADDALEN:** Xo, xo, Zer? Ez dela nior gure etxean ibilki?... Bo... orai ere nor heldu den?

(*PERTTOLI sartzen da*)

**PERTTOLI:** Jainkoak degizuela arratsalde on.

**MADDI eta MADDALEN:** Bai zuri ere.

**PERTTOLI:** Zer ari zirezte?

**MADDALEN:** Roi, Maddi egoki, eta ni huni behar.

**PERTTOLI:** Aita?

**MADDI:** Aitaren ala gure ikusterat heldu zare?

**PERTTOLI:** Ahalaz zuen, aita, nahiago nuke ez ikusirik.

**MADDI:** Pausan da.

**MADDALEN:** Zerbeit berri on ekarki daukuzu, Perttoli?

**PERTTOLI:** Maddirentzat dut preseski berri ona...

**MADDALEN:** Aha, Maddirentzat ditutzu berri onak? Norbeiten goraintziak? (*Irriz*) Ha ha ha.

**MADDI:** (berdin irriz): Ha, ha, ha, ha... (bi ahizpak beren lanari)

**PERTTOLI:** Xo, emazue ixilago... (afixari behar) Ta, zer duzue paper hau?

**MADDI:** Atean kolatzeko afixa.

**PERTTOLI:** A, ferietako?

**MADDI:** Preseski.

**MADDALEN:** Aratsean musika ere izanen omen da, gure bila etorriko zare?

**PERTTOLI:** Ba, gogotik.

**MADDALEN:** Gu bion erdian, zer Jauna, zu.

(*MADDALEN eta MADDI karkailaka irriz*)

**PERTTOLI:** Xo, ba Aita atzarraraziko duzue.

**MADDI** (*sukalde alderat beharria emanaz, zerbeit aditzen balu bezala*): Xo...

**MADDALEN** (*berdin maltzurkerian*): Aita dun ba naski. Leioa zabaldu din.

**PERTTOLI** (*izitua*): Oi, oi, adio etxea, banoa...

**MADDALEN:** (beti maltzurkerian): Ez zazula holakorik egin, sukaldeko leihotik ikusiko zaitu, eta xahu zare... gorde zaite.

**PERTTOLI:** Non ordean?

**MADDALEN** (*Saskitik xuriketak aurtikirik*): Hemen, hemen!

**MADDI:** Ba ederki izanen zare hor; sar zaite fite. (*PERTTOLI sartzen da saskian, xuriketak gainera botatzen diozkate, ur zorta bat ere, alegia deus ez. Bi ahizpak elgarri keinuka, irria ezin atxikiz. MADDALEN sukaldeko alderat ateratzen da*)

**MADDI** (*kantuz*):

*Arrosa eder buketako*

*Amodioa gazten dako  
Behar dudana hemen banu bi begien aitzineko,  
Doatsuagorik ez litake munduan nehor ni baino.*

**MADDALEN** (*sukaldetik gibelatekoan, trufa baino musika gehiago maltzurkerian*): Gatua zunan, harramanzka hari.

**MADDI** (*Saskirat ganik*): Perttoli, Perttoli, ateratzen ahal zare, beraz... gatusa omen zen.

**PERTTOLI** (*Xuriketak bi aldetarat igorririk, saskitik ateratzen*): Beharrik gizona gizon baita saskitik ere, aldi huntan behartzen zait, ori. Ez banintz gizona izan, xuriketan azpian itoko nintzen. (*Begitartea mokanesaz arraskatzen du, galtzak eta palto-besoak inarosten. MADDI eta MADDALEN hari beha*)

**MADDI**: (*MADDALENi maltzurki*): Gaizo Perttoli... Hau, gizona? Gizon gaitza, Jainkoak hala egin balu.

**PERTTOLI**: Bazautzue. Ez bainaiz ito. Ez bainaiz ito.

**MADDALEN**: Gure aitak atxemanik baino, hobe duzu oraino hola.

**PERTTOLI** (*kantuz*): Oi nola, oi nola, Ahal bezala kontsola (*aitzina mintzo*) denaden, ez nau oraiko huntan atxeman behar... Banoa sarri arte.

**MADDI**: Bai, nahi duzun arte, Perttoli

(*PERTTOLI ateratzen da*)

**MADDALEN** (*Kantuz*): Hiru ta baterez.

**MADDI**: Ez din, ez din oraino emanen.

**MADDALEN**: Uste dun?

**MADDI**: Ez dun ongi ezagutzen... funtsean, ez dun aditu, zer erran duen? Sarri arte. Baina atxemanen dinagu. (*Kantuz*) *Arrosa eder buketako.*

**MADDALEN** (*kantuz*): *Amodioa gazten dako*

**MADDI** (*berdin*): *Behar dutana banu bi begien aitzineko.*

**MADDALEN** (*aitzina*): *Dohatsuagorik ez litake munduan zu baino. (Berak gero) Xo. Kattalin zaharra.*

**KATTALIN** (*atetik*): Jaun goikoak dautzuela aratsalde on, haur ederrak.

**MADDI**: Bai zuri ere, Kattalin.

**KATTALIN** (*beti atetik*): Huna gaztain hostoak.

**MADDI**: Ez dugu beharrik.

**KATTALIN**: Ez duzue nahi? Artoaren azpian emateko?

**MADDI**: Ez dugu artorik etxean erretzen.

**KATTALIN**: Hainbat gaixto.

**MADDALEN**: Errazu, Kattalin...

**KATTALIN**: Zer duzu, Haurra?

**MADDALEN**: Badakizu eskuetan irakurtzen?

**KATTALIN**: Girixtino naun, eta nere baitarik ez dinat holako podererik.

**MADDALEN**: Esku barneari behar aritzen zare bada.

**KATTALIN**: Beha, ba.

**MADDALEN**: Zertarako aritzen zare beraz hola? Jostetan?

**KATTALIN**: Ez haurra.

**MADDALEN**: Othoitzean baizik ez zakinat.

**MADDI**: Othoitz egitea galdatzen dautzu, Kattalin (*MADDALENi*) irakuts-akon eskua.

**KATTALIN**: Zabal zan eskua?

**MADDALEN**: Huna biak (*eskuak zabaldurik*)

**KATTALIN** (*Behin erdi ahapetik eta geroago ta ixilago*): Santa Ana, Jainkoaren Amaren ama...

**MADDALEN**: Jainkoaren amatxi...

**KATTALIN**: Xo... Andre dena Maria, Jainkoaren Ama, eta saindu guziak, lagun nezazue (*ixtant bat ixilik, gero*) Haur ona hain, ona... Denborra laburrik barne irriskatzen dun ezkontzea. Ba... denbora laburrik barne...

**MADDALEN**: Ha, ha, ha, ha,

**MADDI**: Ha, ha, ha, ha,

**KATTALIN**: Ez dun irri egitekorik...

**MADDALEN**: Zer adin ematen dautazu.

(*Bi ahizpak irriz*)

**KATTALIN:** Gaztea hain... gaztea, oraino... gaztetasuna... bera sendatzen den gaitza. (*Bi ahizpak beti irriz*) Gauza serioa dun, gauza serioa. (*MADDALENen esku bati beha, aitzina*) Mutiko gisako batekin ezkonduko haiz, mutiko gisako batekin... Denek maite duten mutiko batekin... ba... denek maite duten mutiko batekin... uros izanen haiz uros....

**MADDALEN:** Hola kontent naiz (*MADDIri*) Orai hiri, Maddi.

**KATTALIN:** Santa Ama, Jainkoaren Amaren ama, Andre dena Maria, Jaikoaren Ama eta saindu guziak lagu nezazue. (*Ixtant bat ixilik, gero*) Haur planttako haiz, planttako... Laster irriskatzen dun ezkontzea, ba... Laster... laster. (*Bi ahizpak irriz*) Zertako egiten duzue bada irri? Ez du irri egitekorik.

**MADDALEN:** Zer egin behar dugu bada, nigar?

**KATTALIN:** Gazteak zarezte gazteak... (*bi ahizpak beti irriz*) Muthiko behar bezalako batekin, ba... denek maite duten batekin. Oi, zer bizi urosa eremanen dunan. Bada zer bizi urosa...

**MADDI:** Hobe, hobe, segurki.

(*MADDALENek kontuarretik harturik dirua ematen dio amoina gisa*)

**KATTALIN** (*Atean harat gatean*): Gure Jaun goikoak etxe huntakoak begira detzala orai eta beti. Halabiz.

**MADDALEN:** Zer zozokeriak!

**MADDI:** Ez dun gaitz hola egitea.

**MADDALEN:** Hola nik ere eginen dinat.

(*KAPITAINA, errotua bezala, sukaldean sartzen, arma eskun, eta liburu handi bat sakelatik ageri*)

**KAPITAINA:** A, errient txarra. Kattalin gorri. Galtxa gorri ere erran zukek hiri.

**MADDI:** Zer gertatzen zautzu aitatzixi?

**KAPITAINA:** Azpiz jokoa, Satorrak bezala...

**MADDI:** Bainan...

**KAPITAINA** (*Kadera batean jarririk, lurrari behar*): Aho ederra, ba; ezti-eztia... Ez da zeren dida ur ezti arrainari.

**MADDI** (*Aitzinerat ganik*): Zer erran nahi zinuen?

**KAPITAINA:** Bakea. Ta bi sosik gabe, gero. Bakea ta bakea bakarrik. (*burua altxaturik*) Aita etorria dun?

**MADDI:** Aratsalde guziko gana da ihizirat.

**KAPITAINA:** Ni ere uso xolan nindunan... Aspaldiko nere ametsa zunan, uso xola bat izatea. Eta orai hantxe dinat haitz baten kaskoan.

**MADDI:** Etxegaraiko Ipolitek egina.

**KAPITAINA:** Hura ba. Behar dun ikusterat etorri egun horetarik batez. Bahaki Maddi... Zuhubier goiti, oiloak etzaterat baino gogotikago gaten naun... eta xola barnean, tapiza, iratzea; alde guzietarik leiho ttiki batzuk, jauregi zaharretako dorre kaskoetan bezala... (*kantuz, alegia deus ez*):

*"Ez dun munduan gizonik*

*Erregerik ez printserik*

*Ni bezain urusa denik..."*

(*Aitzina mintzo*) Kasko hartan, denak baino gorago, eta libre... Apeoak bakarrik gaineko aldean. (*Berriz kantuz*)

*"Osasun ona batetik*

*Ontasun asko bertzetik*

*Zer behar dut gehiago nik?"*

(*aitzina mintzo*) Ez dinat deusen eskasik. Etxean ongi artatzen nauzue; niok nion ez nauzue manatzen. Ez behar ere haatik... Kaxketadunek hori bazakiten, egun ikasi dine, beren gustuz.

**MADDI:** Jandarmek?

**KAPITAINA:** Jandarmek ba. Dedbru figura hek ez zazkite haitz azpirat etorri.

**MADDI:** Jandarmak etorri zaizkitzu aitatzixi?

**KAPITAINA:** Ba, proze-berbala egiterat, permisik ez dutalakoan... Permisik nik... ederra luken no... Ez dinat egundaino hartu eta ez naun hartzekotan ere.

**MADDI:** Ori, bekatu ere liteke, zure adinean.

*(MADDALEN sartzen da eta ixil-ixila egoten, bi eskuak gerrian)*

**KAPITAINA:** Bazakinat ba, nor den salataria... Egia erran, ez zakinat, bainan pentsatzen...

**MADDI:** Ta, nor?

**KAPITAINA:** Nor izanen da. Errieta bixtan dun.

**MADDI:** A hori zinuen oxtian?

**KAPITAINA:** Ez dun ez higuin hura bera agertu... Haren mutila, Perttoli ustel hura.

**MADDI:** Noiz? *(MADDALENI beha gelditzen da berea gogoan)*

**KAPITAINA:** Orai, nexka.

**MADDI:** Eta.... proze berbala egin dautzute?

**KAPITAINA:** Egin nahi ba... Haitz kaskotik ikusten ditinat heldu jandarma, brigadier eskualduna eta bertze muxtatxadun beltz arrotz bat.

**MADDI:** Ez diozute kasurik egin?

**KAPITAINA:** Utzi tinat etortzerat... Brigadierrak beheretik errespetuarekin: "Xuritegiko *nausia, hutsean zare, jautsi behar duzu*". Nik: "Nor zaitut zu?". "Senpereko Brigadierra, zuri proze-berbala egiterat ethorria. Jauts zaite!". Nik orduan, "Ez naiteke jauts, liburutan ari naiz." Brigadierrak: "Badut laguna, zuhubier goitik erorriko baitzautzu, eta, gogotik ez bada bortxaz hautsaraziko, zuk nahi baino lasterrago hanbat gaixto". Nik: "Jaun Brigarierra, ni ere badut norekin laguna, eta ez bazarezte hortik lekutzen eta kuxean gero. Hainbat gaixto zuentzat."

**MADDI:** Aitatzixi, halakorik zuk...

**KAPITAINA:** Adi zazue: behere hartan, bazterrak ixil orduan... Elgarrekin zerbait murmurikatu dine, eta, gero, brigadierrak egin zautan: "Hola denaz geroz, bagoatzi, Jauna, bainan nere berri jakinen duzu..." Gan dun.

**MADDI:** Bearbada hunat heldu dire.

**KAPITAINA:** Pentsatzekoa dun ba.

**MADDI:** Bon, bon: utz-zatzu, gure gain... Zoazi, afal zaite; balakatuko ditugu ba.

**KAPITAINA:** Hil eta, ez dinagu salda beharrik izanen.

**MADDI:** Ez da oraino berantegi, aitatzixi. Hezurak etxean direno, ez da axolarik.

*(KAPITAINA sukalderat)*

**MADDALEN (MADDIri):** Hauxe dinagu ixtorioa.

**MADDI:** Erran berriz. Kasu eginen dun ixtant bat hemen. Baratzeraino noa, Michel ageri denez.

**MADDALEN:** Ba, ba.

*(MADDI ateratzen da kanporat, MADDALEN sukalderat)*

*(Kanpoan mintzoa)*

**MADDI:** Bonsoir Messieurs les gendarmes. Sarako bide berrirat atera nahi duzue, dudarik gabe? Hortik eskuin ateratuko zarezte.

**BRIGADIERRA:** Ez gabiltza batere bidearen ondorik, zuen etxerat heldu gare.

**MADDI (Maltzurkerrian):** Gure etxerat? A, orduan zar zaizte.

*(MADDI, BRIGADIERRA eta JANDARMA MUSTATXADUNA sartzen dire, MADDIK aitzina)*

**MADDI:** Egarrituak zuek, segur. Beti bidearen gainean. (Botoila arno zuri ekarririk, betetzen duela) Atsegin dut zuen ikustea. (Brigadierrak zintzurra karrakatzen du) Gizon ederrak, eta holako arropainran... Edazue...

*(Basoak huts ahala betetzen diezkate MADDIK)*

**BRIGADIERRA:** Esku arina duzu. Loria da zure eskutik edatea... Beti bi ahizpak etxean?

**MADDI:** Ba, biak Jauna. Ez gara sobera. Ez dabila jende handirik, bainan holako etxean bada beti lana.

**BRIGADIERRA:** Aitatxo... eta...

**MADDI:** (Solasa moztuz): Aitatxik, alabainan adin handia du. Laut-hogoi urthe goiti...

Ezagutzen duzue? Denok ezagutzen dute. Bizia da, miseraulea. A ez da beti errex, jakin zazue, haren jasaitea. Adina, adina. Denek xahartu nahi eta xahartzeak deus onik ez adinarekin zernahi bitxikeria heldu zaio jendeari. Aitatxik, liburua eta ihizia: oren osoak liburutan eta zirri-marretan gero ihizin... Ez duzue batere edaten, Jaunak. Arratsakdeko bortz orenetarik zazpiak artean ihizin, beraz, ez du orduan sekulan pitsik atxematen. Armarekin, gaten da, bainan erratz giderra balu, berdin erran nahi luke. Ez du hiru metretan ikusten. Beharrik liburu bat beti berekin eramaten du; liburutan pasaten du oro bat denbora.

Dena den, hor nonbait dabilen artean, bakea dugu etxean. Hura ere on da; haurraren pare baita gaixo aitatxi... Edazue, bada... Haurrak batuzu naski, Jaun Brigadierra?

**BRIGADIERRA:** (*ahorat zeramakan basoa eskuan*) Segurki haurrak baititut (*edaten du*)

**MADDI:** Jaun hunek ere?

**BRIGADIERRA:** Hunek bertze bortz.

**MADDI:** Oi, zer haurketa, jandarmeria batendako... eta denak erneak, nik uste?

(*PERTTOLI sartzen da eta beha gelditzen, atearen ondoan. MADDALEN ere agertzen da sukaldetik. MADDI aintzina ariko da arnoa jandarmeri sala ala saka, erretolida dariola. Haren marmara baizik ez da ezagun izanen. Bizkitartean, MADDALEN eta PERTTOLI gora mintzo*)

**MADDALEN** (*PERTTOLIrri*): Zer duzu? Ez zara zure baitan?

**PERTTOLI:** Ni? ba...

**MADDALEN:** Bisaia alegeragoa duzu usaian.

**PERTTOLI:** Ez dakit.

**MADDALEN:** Zerbeit baduzu?

**PERTTOLI:** Ez dut deusik.

**MADDALEN** (*aitzina maltzurkerian*): Xo. Nik badakit Perttoli, halkoetan zer egin behar den.

**PERTTOLI:** (alegeraxeago agertu nahiz) Zer?

**MADDALEN:** Ikusiko duzu... ekar-azu eskuina.

**PERTTOLI:** Bo.

**MADDALEN:** Ikusiko duzu, balio duela.

**PERTTOLI:** Zaude ixilik, zaude ixilik... aita ez da hemen?

**MADDALEN:** Ez ihizin, etortzekoa da.

**PERTTOLI** (*jendameri behaturik*): Aitatxi?

**MADDALEN:** Ekazu bada eskua.

**PERTTOLI:** Ori beraz.

**MADDALEN:** Santa Ana, Jainkoaren Amaren ama... Andre dena Maria, Jainkoaren Ama eta saindu guziak, lagun nezazue. (Ixtant bat ixilik, gero) Gizon planttako haiz, planttako... irriskatzen duzu, laster ezkontzea ba... laster... Laster... ez irrik egin. Ez da irri egitekorik.

**BRIGADIERRA:** Ilhunak hemen atxemanen gaitu. Gan behar dugu. (MADDIrri pagatu nahi dio MADDIk ez du onhartzten) Esker mila, milesker hainitz.

**JAUN MUSTATXADUNA:** Mercfi Mademoiselle, merci. Bonsoir.

(*Ateratzen dira*)

**MADDALEN** (*PERTTOLIrri*): ... irriskatzen duzu laster ezkontzea, laster... laster...

**MADDI** (*kontoarrean basoak eta botoila pausaturik, eta garbiturik kantuz*): Lau eta baterez.

(*Perttoliren eta Maddalenen ganat heldu da. Perttoliri esku eskerra hartzen dio*)

Irrikatzen duzu, laster ezkontzea... Laster... laster.

**PERTTOLI** (*irriz*): Irriskuak ez du egundaino nihori minik egin.

**MADDALEN:** Xo bada,... neska gisako batekin ezkonduko zare; neska gisako batekin...

**MADDI:** Denek maite duten neskatxa batekin...



**MADDALEN** (*berdin*): Denek maite duten neska batekin.

**PERTTOLI**: Ez bederen zurekin?

(*Hiruak karkailaka irriz*)

**MADDI**: Aita eta Kakerre.

**PERTTOLI**: Zuen aita?... Oi, oi, banoa.

**MADDI**: Ez zazula holakorik egin. Gorde zaite.

**PERTTOLI**: Nun ordean?

**MADDALEN**: Saskian

**PERTTOLI**: Ez, ez naiz berriz saskian satzekotan.

**MADDALEN**: Norapeit behar duzu bada higitu, aita-ta zakurren sartzen ari dire.

**PERTTOLI**: Ez naiz ateratzen ahalko?

**MADDI**: Joan zaite hortik ikusiko zaituzte.

**PERTTOLI**: Sukaldean barna?

**MADDALEN**: Erdiz-erdi hatxemanen zaituzte. Eta hemen nun gorde?

**PERTTOLI**: Orduan banoa.

**MADDI**: Hola ateratzen bazare, xahu zare. Izatekotz bertzela bezi.

**MADDALEN**: Zer eman soinean?

**MADDI**: Goiti zoazi. Zerbeit eginen dugu (*MADDALENI*) Ganbara itxurat lagun zan. (*Harma xoko batean gelditzen da. Eskalerrak goiti badoazi MADDALEN eta PERTTOLI*)

**MADDALEN** (*Eskalerretarik*): Gaxuxa okerraren arropak?

**MADDI**: Egia, ederki izain tin.

**MADDALEN** (*PERTTOLIRI*): Badakizu zer diren delako arropak?... Gure etxean ibilia da lanean Gaxuxa. Harek utziak ditu. (*Eskalerrak goiti suntsitzen dire*)

(*MADDI kontuarrean afixaren bururatzen, kola ematen*)

(*Apur baten buruan jausten da MADDALEN*)

**MADDALEN**: Fite prest dun.

**MADDI**: Aita ez din, Gaxuxa okerra, begien bixtan ikusten ahal... Gure etxean, zangoak sartzea debekatua zion.

**MADDALEN**: Ez dinagu irri egitea fini.

**MADDI**: Ea badu oraino jotzen [joiten]

(*Biak irriz karkailaka*)

(*ANDRES eta KAKERRE sartzen dire armekin*)

**ANDRES**: Zer haroa darabilkizuen?

**MADDI**: Bazinaki aita.

**MADDALEN**: Jandarmak izanak zaizkigu.

**ANDRES**: Jandarmak? Zertan? Edaten?

**MADDI**: Aitatxiren gatik... Zoazi sukalderat, aitatxik berak guk baino hobeki kondatuko dautzu.

(*Hainbertzenarekin, PERTTOLI jausten da emazteki xahar bezi*)

**ANDRES**: Eta hori?... Nun dabila... (*PERTTOLIRI harma eskuan*) Hezurak hausten dauzkinat.

(*PERTTOLI, burua apalik kanporat buruz, ANDRES gibeletik, arma krozarekin bizkarrean panpaka*)

**KAKERRE**: Bainan Perttoli da; Beha zazu, beha zazu.

**ANDRES**: Perttoli?

**KAKERRE**: Zuk errana, jada ganden aratsean, Maddirekin eta hatxemana zinuela.

**PERTTOLI**: (*KAKERREri buruz itzulirik*) Ze, ze. Ez othe dut, zuk bezen bat dretxo?

**ANDRES**: Suntsi hadi hementik, edo lapina bezala garbitzen haut.

**KAKERRE**: Nausia.

**ANDRES:** Aita erradazu.

**KAKERRE:** Aita.

**MADDI:** Ez zazuela deusik egin.

**ANDRES:** (MADDIri eta MADDALeni): Zoazte hementik desohoragarriak.

(MADDALEN sukalderat, MADDI kanporat)

**KAKERRE:** Aita, utz gaitzazu Perttoli eta biok.

**ANDRES:** Merexi luke.

**KAKERRE** (*Harma eskuan*): Utz-zazu nere gain.

**PERTTOLI** (*bere buruari*): Ai, ai, ai, ai. Otsoari ihesi eta hartzak hatxeman.

**KAKERRE:** Biak antolatuko gare. Badiot, hitz bat beharri xilorat errateko.

**ANDRES** (*Sukalderat gatean*): Bon.

**PERTTOLI** (*KAKERREri*): Zer nahi dautazu erran? Ni... ni... niri?

**KAKERRE:** Ninia ba... Maddi maite duzu. Nik ere... Maite zaitu? Ni ere ba... Zuk baino hobeki ezagutzen baitut, badakit zer gertatzen den: "*biak ondorik ibiliki ikusten gaitueno, ezin du hauta*". Eta... nere planak ateratuak ditut. Adi ezazu... Nik, arma eskutan dut... (*xokoko harma erakutsiz*) Hori zurea dudarik gabe?

**PERTTOLI:** Hilka... hilka... hilka ari behar dugula? Gure eskual herrietan holako eskandaka gorria?...

**KAKERRE:** Adi nezazu bada.

**PERTTOLI:** Baina, bainan... errokeria da, bainan, bainan, errotu zare?

**KAKERRE:** Adi nezazu, Perttoli, adi nezazu.

**PERTTOLI:** Ez daki hilka... eta ez dut, futxo, hiltzeko gutziarik... bo, bo, errokeria da...

**KAKERRE:** Bainan nork aipatzen du hiltzerik? Gure harmekin, leiotik tiro bana lurrean, hilarena eginen dugu...

**PERTTOLI** (*emazte arropak kendurik, harma eskuan*): Eta gero?

**KAKERRE:** Denak tarrapatan etorriko dire, eta, Maddi, maiteena duenaren ganat hurbilduko da.

**PERTTOLI:** Maddi ezin deliberatuz egoten bada?

**KAKERRE:** Ez bihotzez maiteena duenaren ganat etorriko da... Bertzeak orduan alde egin beza... Konprenitu duzu?

**PERTTOLI:** Erran bezala.

**KAKERRE:** Goazen beraz. (Harmak kargatzen dituzte kanpoko leioa erdi idekirik bian han xutik. KAKERREK tiro.)

**PERTTOLI:** Bertze kanoia kargatu baduzu, tira zuhaurek bigarrena.

**KAKERRE:** Aise ari zare. (Kargatzen du eta tiratzen.)

**PERTTOLI:** Zer nahuzu, niri pik egin daut. (Biak lurrean, zabal-zabala etzaten dire, hilarena egiten dutela)

(Denak alde guzietarik, MADDI MICHELekin kanpotik)

**MADDI:** (*Sorbaldak altxatuz, bi gorputzen gainetik jauzi egiten duela*): Bat zoroa eta bertzea ergela. (*Aitari*) Huna, aita, hautatu dutan biziko lagun beharra.

(PERTTOLI eta KAKERRE xutiturik elgarri so)

**ANDRES** (*MADDIri*): Dena ere gorrasta; errientaren semea.

**MICHEL:** GAIXTOA zare.

**ANDRES:** Eta, zu zer zare?

**MICHEL:** Zure suhi beharra.

(ANDRESek irrino bat)

(Jandarmak agertzen dira)

**BRIGADIERRA:** Zer gertatzen da?

**MICHEL:** Ez da hilik, ez kolpaturik.

**KAKERRE:** Jaun andre beharren ohoretan tiratu tiroak aditu dituzue (*Jandarmak harrituak elgarri beha*)

**ANDRES:** Zuk amor emanez gero, Kakerre ikusten dut, zer beharko...

**PERTTOLI** (*ANDRESen arrazoinamendua moztuz*): Guk badakigu, bethi, Kakerre, zer dugun orai egiteko. Erran bezala, alde egin, ba batek eta ba bertzea.

**MADDI:** Ez zaretela hola ganen.

(*ERREINTA eta XURRUPERO sartzen dire, denak elgarri behar: KAPITAIN, jandarma, ostaler ERRIENT, denak salbu KATTALIN*)

**MICHEL:** (Botz ezti batekin, irriñoa ezpainetan): Denak lekuko zarezte hemen Maddi eta biok, nahiz duen aita xuria, eta nik gorria, elgarren amodioan bizi gogo "EUSKALDUN FEDEDUN". Hori, girixtinoki altxarazi eta eskolarazi gaituztelakotz. Xuri gorri-kerriak, arrotzkerriak dire, arritzek, Euskal-Herrirat ekarriak... Herrak ondoroak, herriari ekartzea herioa. Nausi dadila beraz amodioa.

**ANDRES:** Elgarretara zarezte gaztea... Eta denek etsenplua emanen dautzuegu mahain hautan elgarretaratuz.

(*ANDRESek eta ERRIENTAK elgarretaturik denen erdia, esku emanka. Cahmpagna eta badoa ANDRES. Mahainetan jartzen dire.ERRIENTA ere jartzera doha, afixa dilindan den kaderra. MADDALEN, xutiarazterat hledu zaio irriz. Xutitxen da. Denak irriz. Bizkarrean kolatu zaio afixa eta fiza hortan ERRIENTArek bizkarrean irakur ditake: Urdea zuen zerbitzuko: Xingar, saieski, soloma, odolki, denetarik ausarki*)

**ERRIENTA:** Zer da? Zer da?

(*Denak irriz*)

**MICHEL:** Zerritegian "cerda" edo urdea (*irakurtzen du*) Urdea zuen zerbitzuko: Xingar, saieski, soloma, odolki, denetarik ausarki.

**ERRIENTA:** Merexi diat, egun Beinat kapitainari, egin diotana egin ondoren.

**PERTTOLI:** Eta nik, Jaun errient-ari gauden igandean erranak, erranik, ez fidoegi, eta hala onhartu salatari izatea, Jandarmeri ez zezan nere kontra parte eman (*Xanpañak betetzen ari dituzte ANDRESek eta ERRIENTAK*)

**MADDI:** Hortaraz geroz, Maddalenek eta biek, ere beharko dugu, ba kofesatu denen aintzinean: barka Kakerre... kexarazi baitzaitut... barka, Perttoli, saski eta Gaxuxaren arropa... barka, Jaun Brigadierrak, oixtian hain bihotz one zerbitzatu arnoa... Barka, aita, horiek guztiak zure alabek egin dituzte eta ez dute nio dehoratu... Noizbait behar NESKEN ALDI

**ANDRES:** Gazteari... eta bereziki neskeri behar zaiote ainhitz barkatu. Ongi egin nahiz ala bertzela, egiten baitute ainitz bekatu. Edan dezagun beraz denek (*basoak altxatzen dituzte*) Gazte haukien ohoretan.

(*OIHAL HEDA AINTZIN DENEK KANTA DEZAKETE "IKUS ARTE"*)

Editions Eskila